


Unitate didaktikoa 2

ZER EGIN KONPOSTAREKIN? 2. atala



Hondakin organikoak ikastetxearen konpostagailuan edo etxolan kudeatu eta gero, konpostari erabilera emango diogu. Ikastetxe batzuetan baratzea badago eta kasu hauetan konposta lurra eta turbarekin nahasi beharko dugu. Baina, zer egin baratzerik ez badago? Lortutako konpostari irteera emango diogu jarduera honen bitartez.

Materialak

- Konposta
- Kotoi edo errafia zaku bat
- Balde bete ur
- Berrerabilitako plastikozko botilak



Urratsak

1. Konpostagailuan lortu dugun konposta kotoizko edo eta errafiazko zakutan sartuko dugu.
2. Zaku hauek lotu eta urez betetako balde batean sartuko ditugu. Zakuak handiak badira, balde bakoitzean bana sartu.
3. Bizpahiru egunez konposta infusio bezala utziko dugu, egunean behin baldean dagoen ura nahastuz.
4. Lortutako infusioa botiletan sartuko dugu eta bakoitzak berea etxera eraman ahal izango du, etxeko lorontzietan bota ahal izateko.
5. Zakuan gelditu den konposta, gure ikastetxeko eremuan dauden zuhaitzetan zabal daiteke.

Zer gehiago?

Lortu dugun infusioa landareetan ongarrri bezala erabiltzen da. Ur honek dituen onddo eta bakterioek landarea zorri eta agente patogenoetatik babesten dituzte. Hostoetan erabiliz gero, hauen estomak ireki eta karbono dioxidoaren murrizketaren prozesuan onurak ekartzen ditu. Landareen hazkuntza hobetzen du.



Unidad didáctica 2

¿QUÉ HACER CON EL COMPOST? 2ª parte

Después de gestionar los residuos orgánicos en el compostador escolar, vamos a dar uso al compost. En algunos centros escolares existe huerta, por lo que mezclaremos el compost con turba o tierra para su uso. Pero, ¿qué hacer si no tenemos huerta? A través de esta actividad vamos a dar salida al compost obtenido.

Materiales

- Compost
- Sacos de algodón o rafia
- Un cubo grande con agua
- Botellas de plástico recicladas



Pasos

1. El compost obtenido en el compostador se meterá en sacos de algodón o de rafia.
2. Se atan los sacos y se sumergen en los cubos llenos de agua. Si son sacos grandes, meter uno en cada cubo.
3. Dejar infundonar el contenido del saco dentro del agua unos dos o tres días. Remover cada día el agua del cubo.
4. El agua infusionada se meterá en botellas de plástico para que nos lo podamos llevar a casa y utilizarlo como abono para regar las plantas.
5. El compost sobrante dentro de los sacos se esparcirá en los árboles que tengamos alrededor de nuestro centro escolar.

¿Qué más podemos hacer?

La infusión obtenida se utiliza en las plantas como abono. Los hongos y bacterias contenidas en este abono protegen a las plantas de los agentes patógenos. En caso de rociarlo en las hojas, los estomas de estas se abren y aporta beneficios en la reducción de dióxido de carbono. Favorece el crecimiento de las plantas.

